

opusdei.org

Bizitza osoaren emaitza saritu zuten Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxak

Alvaro D'Ors katedraduna hil
zelako urtebetea

2005 Urt 13

Orain dela urte bat, otsailaren 1ean,
Alvaro D'Ors jauna hil zen.

Bartzelonan jaioa zen, 1915ean.

Palmira Lois anderearekin ezkondu
zen eta hamaika seme-alaba izan

zituen. 1940an San Josemaria Escriva
ezagutu eta bederatzi urte geroago
Opus Deiko kidea izatea erabaki
zuen. 1996an Eusko Ikaskuntza-
Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte
Zientzien Saria jaso zuen,
Nafarroako Unibertsitatean. Baita
Bianako Printzearen Domina ere jaso
zuen Erromatar Zuzenbideko
katedradunak.

Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko
Kutxak, Giza eta Gizarte Zientzietan,
adiera zabalenean hartuta, Euskal
Herriko curriculum nabarmenena
duen ikerlaria gorendu nahi duen
saria ematen dute urtero.
Beharrezkoa da saritutako
pertsonek lanak oro har Euskal
Herriko zientzi garapenari lagundu
izana. Eusko Ikaskuntza-Euskadiko
Kutxa sariak, Euskal Herriko
Unibertsitateetako departamentu eta
institutuetan edo zientzi eta kultur
Erakundeetan lanean diharduten
zientzialarien modus operandi eta

emaitzetan bikaintasunak duen
balioa indartu nahi du.

Saria emate ekitaldian **Miguel Sanzek**, Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak, hurrengo agurra eskaini zion Alvaro jaunari euskaraz: Atsegin handiz nator sari-emate honetara, Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren gonbiteari esker, eta Eusko Ikaskuntzak Euskadiko Kutxarekin batean antolatutako aurtengo Giza Zientzien eta Humanidadeen arloan curriculum zientifiko hoberena saritzeko Sari Berezia emateko ekintzaren buru izatera. Nafarroarentzat hain paregabe eta maitagarria den Alvaro D'Ors jaunak eskuratu du aurtengo saria, guretzat Alvaro besterik ez, horrela ezagutzen baitugu guk eta Nafarroako Unibertsitateko hain gogoko dituen ikasgela hauetako ikasle, jarraitzaile eta lankideek.

Eusko Jaurlearitzako

Lehendakariaren ordezt, **Maria Carmen Garmendia**k ere, orduko Kultur Sailburuak, Alvaro jauna zoriondu nahi izan zuen:

Lehendakariaren izenean zorion agurra ekartzera etorri naiz Alvaro D'Ors jaunari iluntze honetan eta benetan poz eta ohore handia da bere izenean enkargu eta mandatu hau bete ahal izatea; horrelako bizitza oparo bat sari honekin izan duen ezagutza guztiz merezia duelako. Beraz, Alvaro D'Ors maisuari -euskaraz ere, maisu esaten dugu latinetik hartuta, maisu-, bere maisutasunarengatik zorionak eta esker on.

Pello Salaburuk, Euskal Herriko Unibertsitateko orduko Errektoreak, Alvaro jaunaren curriculum harrigarria azpimarratu zuen: Giza eta Gizarte Zientzietako Saria da gaur ematen duguna hemen. Alde batera utzi da oraingoan zientzia

"gogorra" deitzen dugun hori.
Teknika alde batera utzi dugu eta nik
uste dut halako sariak ematea,
benetan, haize freskoa ekartzea dela.
Haize freskoa ekartzen digula gizarte
osoari. Norbait oroitzen baita
zientzia gogorren ondoan badirela
beste mota bateko zientziak ere. Eta
gaur arratsaldekoak dira
horrelakoak. Zorionak Alvaro D'Ors
irakasle ospetsuari, ongi merezia
baitu bere saria. Curriculum
harrigarria erakutsi digu. Hainbeste
lekutan irakasle izana, ehunkada lan
han-hemenka argitaratuak,
nazioarteko harreman sendoak,
dozenaka ikasle eta dizipulu leku
askotan. Bizitza osoaren emaitza da
gaur saritzen dena. Horregatik berriz
ere, zorionak.

Gregorio Monrealek, Eusko
Ikaskuntzako Lehendakariak
esplikatu zuen Giza eta gizarte
zientzietan den Euskal Herriko
curriculumik hoberena sariztatzen

duela Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral Sariak. Gaur eguneko gizartearen lehiakortasunean, ezagumenak berak eta bere aplikapen praktikoek lehen mailako eragilea delako konbentzimenduak bultzatu zuela sari hau sortzera. Zalantza guztien gainetik baitago herrien ezagumena, lehiakortasuna eta bizi-iraupenaren arteko harreman estua.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/bizitza-osoaren-emaitza-
saritu-zuten-eusko-ikaskuntza-eta-
euskadiko-kutxak/](https://opusdei.org/eu-es/article/bizitza-osoaren-emaitza-saritu-zuten-eusko-ikaskuntza-eta-euskadiko-kutxak/) (2026 Mar 10)